



STEE-EILAS quiere hacer público su rotundo rechazo al proyecto de la Ley Orgánica para la Mejora de la calidad Educativa (LOMCE) que el ministro Wert ha presentado hoy 17 de mayo, en el Consejo de Ministros, y manifestar lo siguiente:

Dicho proyecto mantiene, prácticamente en su totalidad, las medidas regresivas que la mayor parte de los agentes educativos denunciarnos en su momento. En concreto se mantienen cuestiones como la segregación temprana del alumnado, las medidas para fomentar la competitividad y el ranking entre centros, la pérdida del valor social de la educación en favor del mercado, la falta de garantías en la gestión democrática y participativa de los centros, las reválidas... sumamente preocupantes y regresivas.

Son propuestas que suponen una vuelta de tuerca más en diversos ámbitos: buscan limitar los derechos lingüísticos de las lenguas minoritarias del estado en favor del castellano, mejorar el estatus de la enseñanza concertada y reforzar -siguiendo las directrices de los obispos, que han conseguido que sea evaluable y puntuable en el currículo en contra del mismo rumbo de la historia- la presencia de la religión en la escuela. Son medidas igualmente regresivas que dejan entrever el objetivo último de esta reforma, que es la puesta en marcha de un nuevo modelo educativo uniformador, mercantilista y que desde el punto de vista pedagógico no mejora en nada el actual.

STEE-EILAS hace un llamamiento a la comunidad escolar y a la sociedad en general para que defiendan su sistema educativo ante esta agresión que trasciende el ámbito educativo. El Gobierno vasco y el de Navarra deben tomar cartas en el asunto, defendiendo su marco competencial y blindándolo frente a la aplicación de la LOMCE. De la misma manera, a nuestro juicio, los diversos agentes sociales, políticos y sindicales debemos dar un paso firme en ese sentido.

Comisión Nacional Permanente
Euskal Herria, 17 de mayo de 2013

STEE-EILAS



STEE-EILAS sindikatuak gaur maiatzaren 17an, Ministro Kontseiluan Wert ministroak “Ley Orgánica para la Mejora de la calidad Educativa (LOMCE)” delakoaren proiektuaren aurkezpena dela eta, Lege honekiko bere erabateko ezadostasuna adierazi nahi du.

Horren harira, STEE-EILAS sindikatuak ondokoa adierazi nahi du:

Aipatutako proiektua bere osotasunean mantentzen ditu bere garaian hezkuntza eragile gehienok salatu genituen neurri atzerakoiak. Hauexek, besteak beste: ikasleen bereizte goiztiarra ibilbide ezberdinetan, ikastetxeen arteko lehiakortasuna eta ranking-a bultzatzeko neurriak, hezkuntzak duen balio sozialaren galera lan munduaren mesederako, ikastetxeetako gestio demokratikoaren eta parte hartzearen garantia falta, azterketa edo “errebalidak”... oso kezkarriak eta atzerakoiak.

Aldi berean, sartzen diren aldaketek, hobetu beharrean, gehiago bihurritzen dute aurreko zirriborroa. Proposamen hauek hainbat arlotan okertze nabarmena ekartzen dute: itunpeko irakaskuntzaren estatusa hobetu eta erlijioen presentzia indartu egin dute. Hala da, gotzainen aginduei jarraituz erlijioa ebaluagarria eta kontuan hartzekoa izango da curriculum nahiz eta jendartearen bilakaera kontrako noranzkoan. Bereziki kezkarria da Estatuko gutxiengo hizkuntzen eskubideak mugatzea gaztelaniaren mesederako, murgiltze ereduak arriskuan jartzeraino. Neurri atzerakoi hauek erreforma honen funtsezko helburua ikustarazten digute: oraingo eredu ikuspuntu pedagogikotik ezertan hobetzen ez duen hezkuntza eredu uniformatzaile eta merkantilista berria martxan ipintzea.

STEE-EILASek hezkuntzako eta gizarte osoko eragileei deia luzatu nahi die gure hezkuntza sistema defenda dezagun hezkuntza arloan ez ezik beste eremu gehiagotan eragiten duen eraso honen kontra. Gure ustez, eragile sozial eta politikook konpromisoa hartu behar dugu norabide honetan pausu argi eta sendoak emanaz. Era berean, EAEko eta Nafarroako gobernuek erabakiak hartu behar dituzte marko kompetenzialak defendatzeko eta blindatzeko LOMCEn aplikazioaren kontra.

Nazio batzorde Iraunkorra

Euskal Herria, 2013ko maiatzaren 17an.